



ARABAKO MUSEOAK
**HEZKUNTZA
PROGRAMA**
2025-2026 IKASTURTEA



<https://web.araba.eus/eu/hezkuntza-museoak>

ARABAKO MUSEOAK
**HEZKUNTZA
PROGRAMA**

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN
MUSEOAK
MUSEO ETA ARKEOLOGIA ZERBITZUA
HEZKUNTZA

HEZKUNTZA PROGRAMA

2025-2026 ikasturtea

2 025-2026 ikasturterako, aurten ere, Arabako Museoeek hainbat proposamen plazaratzen dituzte, IKASTETXE ETA ELKAR-TEENTZAKO baliabide didaktikoa izan dadin eta PUBLIKO OROKORRARI zuzendutako PROGRAMA PUBLIKOA, Museoen eta gizartearen arteko zubi gisa.

Proposatutako jarduera guztiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen dira.



educacionmuseosyarqueologia@araba.eus



IKASTETXEAK ETA ELKARTEAK

BISITA - LANTEGIA

Bisita eta lantegi didaktikoa elkartzen ditu.

Bi jarduera egingo dira: museo batera BISITA, hautatutako gaiaren araberakoa, jardueraren bati lotuta, eta ondoren LANTEGIA egingo da.

Haur hezkuntza Lehen Hezkuntza

Iraupena: 2 h

BISITA INTERAKTIBOA

Hautatutako gaiaren araberako museo aretoak bisitatzearekin batera, talde bakoitzari egokitutako jarduerak egingo dira aretoetan bertan.

Lehen Hezkuntza DBH Batxilerra

Iraupena: 1 h 30 min

BISITA GIDATUA

Bisita azaldua, orokorra edo gaikakoa, edo hastapen bisitak taldean pertsona ugari biltzen direnean.

DBH Batxilerra Helduak

Iraupena: 1 h



BISITA KONBINATUAK

Bisita horiek hirian zeharko txangoak eta hautatutako gaiarekin zerikusia duen museo bat ikustea uztartzen dituzte edo, gaia dela eta, zerikusi zuzena duten bi museo ikustea.

Lehen Hezkuntza DBH Batxilerra

Iraupena: 2 h 30 min

HEZKUNTZA BEREZIA


Premia bereziak dituzten pertsonekin lan egiten duten ikastetxeei eta elkarteei zuzendutako bisita-lantegiak.

Esaguzu zer interesatzen zaizun. Zer oztopo izaten duzu museoak bisitatzean? Nahierara erabiltzeko programa bat prestatuko dizugu. Zer premia daukazu aztertu, eta zure neurrira eginiko jarduera bat proposatuko dizugu.

PRESTAKUNTZA BISITAK

Irakasleei eta hezitzaileei zuzendurik daude, irailean eta urrian. Helburua da hobetzea museoak baliabide gisa erabiltzeko ikuspegia eta bisita egiteko baliabide egokiak eskaintzea.

Iraupena: 1 h





PROGRAMA PUBLIKOAK

BISITA GIDATUAK

Bisita azaldua, orokorra edo gaikakoa, edo hastapen bisitak taldean pertsona ugari biltzen direnean. Gutxienez 6 pertsonako taldeentzat.

Iraupena: 1 h

BISITAK FAMILIAN

Jarduera hau norbanakoei zein familiei eskaintzen zaie; ikustaldi azaldua da, zeinak taldeari egokitutako azalpenak eta jarduerak uztartzen dituen bisitan zehar. Gutxienez 6 pertsonako taldeentzat.

Helburua: Arabako ondarea familian gozatzen ikastea.

Iraupena: 1 h 30 min

UDAKO PROGRAMA

- Ikastetxeei, elkarteei eta komunitateei zuzenditako tailerrak eta bisita gidatuak
- 5 eta 11 urte bitarteko haurrentzako tailerrak
- Publiko orokorrarentzako bisita gidat

GABONETAKO PROGRAMA

5 eta 11 urte bitarteko haurrentzako jarduerak



educacionmuseosyarqueologia@araba.eus



<https://web.araba.eus/eu/hezkuntza-museoak>



945 181 925
Arabako Arma Museoa
Museo de Armería de Álava



945 181 918
Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava



945 203 707
BIBAT,
Arabako Arkeologia Museoa eta Arabako Fournier Karta Museoa
Museo de Arqueología de Álava y Museo Fournier de Naipes de Álava



945 181 924
Arabako Natura Zientzien Museoa
Museo de Ciencias Naturales de Álava

ARABAKO MUSEOAK

HEZKUNTZA

PROGRAMA